

# Noqua!!

H A M A B O S K A R I A

2001eko azaroaren 23a VI.urtea

Usurbil, 124. zenbakia



**Ikasleen aldarrikapenak eta musikak 5.000 lagun bildu zituzten**

## GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8


**GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,  
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA  
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.  
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8**

GARAGE ITXIAK. KOMUNITATEN ADMINISTRATUAZ.  
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT. ALTURA BEREZIAK,  
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMAÑA ETA LUZERA  
DESBERDINAK. EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU  
PROPIOAREKIN. KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN

**SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK  
SARRERAK: 500.000 pezetarik. HILEKOAK: 15.000 pzt.**

**MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21  
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE**

### GARAGEN DISTRIBUZIOA




Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua

## SETABU TAILERRAK, S.M.

ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



SOLDADURA

BURDINEZKO ATEAK

BURDIN SAREAK


PLANOTIK EGINDAKO PIEZAK

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48  
FAXA: 943 37 24 67

**Argitarapen honen edizioko laguntzaile:**



**k u t x a**  
zuri esker

## Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Aintzane!** Azaroaren 28an zure urtebetetze eguna denez, zorionak familiakoen partez eta besarkada bat Ane eta Joxe Luisi ere.



Zorionak **Olatz!** Azaroaren 30a noiz iritsiko zain egongo zinen ezta? 11 urte beteko dituzun eguna hemen da bada. Muxu handi bat.



Zorionak! **Aitzolek** 14 urte beteko ditu azaroaren 25ean, **Ahetzek**, berriz, 8 urte abenduaren 3an. Ondo pasa eta muxu bana etxekoan partez.



Zorionak **Agurtzane!** Azaroaren 22an 22 urte beteko dituzunez, muxu eta besarkada handi bat etxekoan partez. Zure errondaren zain gaude!



Zorionak **Nikolas eta Alazne!** Azaroaren 23an izango da baten urtebetetze eguna, azaroaren 11n izan zen, berriz, bestearena. Muxu handi bana etxekoan partez!



Zorionak **Anaisa!** Azaroaren 15ean adin nagusikoa bihurtuko zarenez muxu handi bat eta besarkada bat etxekoan partez.



Zorionak **Xabat eta Ugaitz!** Lehenengoak azaroaren 30ean beteko du urtea, bigarrenak, berriz, abenduaren 5ean 8 urte. Muxu handi bat etxekoan partez!

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: abenduak 7

Ekartzeko azken eguna: azaroak 30

## Hildakoak



2001-10-08  
**Joxe Aburruza Aguirre**  
71 urte  
Txikierdi



2001-10-17  
**Manoli Zabala Zapirain**  
85 urte  
Troya baserria

## Jaiotzak

**Maria Garcia Tardio**  
(2001-10-03)  
Kaleberri

## Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47	06.03	06.20	06.08	06.24	06.39
06.17	06.33	06.50	06.38	06.54	07.09
06.47	07.03	07.20	07.08	07.24	07.39
07.17	07.33	07.50	07.38	07.54	08.09
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17	08.33	08.50	08.38	08.54	09.09
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.20	12.08	12.24	12.39
11.47	12.03	12.20	12.38	12.54	13.09
12.17	12.33	12.50	13.08	13.24	13.39
12.47	13.03	13.20	13.38	13.54	14.09
13.17	13.33	13.50	14.08	14.24	14.39
13.47	14.03	14.20	14.38	14.54	15.09
14.17	14.33	14.50	15.08	15.24	15.39
14.47	15.03	15.20	15.38	15.54	16.09
15.17	15.33	15.50	16.08	16.24	16.39
15.47	16.03	16.20	16.38	16.54	17.09
16.17	16.33	16.50	17.08	17.24	17.39
16.47	17.03	17.20	17.38	17.54	18.09
17.17	17.33	17.50	18.08	18.24	18.39
17.47	18.03	18.20	18.38	18.54	19.09
18.17	18.33	18.50	19.08	19.24	19.39
18.47	19.03	19.20	19.38	19.54	20.09
19.17	19.33	19.50	20.08	20.24	20.39
19.47	20.03	20.20	20.38	20.54	21.09
20.17	20.33	20.50	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.08	22.24	22.39
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	21.09

## Bai, esan?

• Udala	37 19 51
• Udaltzaingoa	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak	37 01 48
• Anbulategia	36 20 13
• Udaregi ikastola	36 12 16
• Udaregi (Kalezar)	36 45 00
• Agerialde ikastetxea	36 38 95
• Oiardo kirolegia	37 24 98
• Zumarte	37 15 94
• Etumeta	37 20 01
• Taxi geltokia	36 21 78
• D.Y.A.	46 46 22
• Ertzantza	112
• Suhiltzaileak	112
• Larrialdiak	112
• Anbulantziak	112
• Posta Kutxa	
• Gure Pakea	37 32 28
• Gure Elkarte	37 17 51
• Arrate egoitza	36 63 40
• Eusko Tren	47 09 76
• Noaua! aldizkaria	36 03 21
• Oa epaitegia	37 23 36
• Oa farmazia	36 12 17
• Iturralde farmazia	36 33 95
• Zubietako Herri Batzarra	37 20 77
• Argindarra (Iberduero)	47 09 76

## Abendua

Astel.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
				1	2
3	4	5	6	7	8
10	11	12	13	14	15
17	18	19	20	21	22
24	25	26	27	28	29
31					

● Hurrengo alea

Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartearen badihilki-zu edo eta herriko zerbaitezaz hitz egin nahi baduzu guk ika-mikan toki bat egingo dizugu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoi-tzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02  
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net  
Web orria:  
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

**Kazetarien koordinatzailea**

Josu Aranberri

**Kazetariak**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika,  
Olatz Lasagabaster eta Agurtzane  
Solaberrieta

**Publizitatea**

Agurtzane Solaberrieta

**Zuzentzailea**

Eneko Harreguy

**Kolaboratzaileak**

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe  
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier  
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,  
Alazne Begiristain, Zaloe Arnaiz, Agur-  
tzane Solaberrieta, Joseba Pellejero,  
Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel  
Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz  
Goenaga, Urko Manterola, Eneko  
Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Jose-  
ba Zubeldia, Imanol Goenaga, An-  
doni Udabe, Eukene Kamino, Isaak  
Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eiz-  
mendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus  
Urbietza, Iñaki Agirresarobe eta Mari  
Angeles Arruti.

**Bazkidetza**

Aitziber Aranberri

**Erredakzio Kontseilua:**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika,  
Garikoitz Udabe, Olatz Lasagabaster  
eta Agurtzane Solaberrieta.

**Informatika**

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

**Banaketa**

Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta  
Kerman Errekondo

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamaboskariak ez du  
bere gain hartzen aldizkarian  
adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko  
jendaurreko  
ordutegia:**

**10.00-14.00 / 16.00-20.00  
astegunetan**

## Gay eta lesbianak konplexurik gabe plazaratzen ari dira

**A**zkenaldi honetan gero eta gehiago hitz egiten da gay eta lesbianen inguruan. Gizartea ere arlo honetan aurrera doa eta homosexualen onarpena haundiagoa dela esan daiteke, kalean, plazan... geroz eta gehiago ikusten baitira. Hone-la, gizarteak sexu bereko bikoteen berdintasunaren aldarrikapena oihukatzen du gero eta ozenago. Gero eta jende gehiagok ospatzen dugu ekainaren 28an gay eta lesbianen eguna, eta armariotik aterata, gay eta lesbianak konplexurik gabe plazaratzen ari dira orain.

Hala ere, PP, CIU eta CC alderdien kontrako botoekin atzera bota zen urrian homosexualak ezkontzeko lege aldaketa. PP guztiz kontra dago eta gehiengo absolutua du gainera. Honen aurrean ezkerreko alderdiek, sindikatuek etab., ezker mugimenduak hartu behar du sexu bereko bikoteen aldarrikapenen aldeko jarrera.

Beste aldetik, inguruko nazioetan gero eta lege aurrera-koiagoak egiten ari dira eta horren eragina ere gurera iristen ari da. Alemanian abuztuan sartu zen indarrean homosexualen eta heterosexu-  
alen parekatzea aitortzen duen legea. Ezkontzarako ezezik, oinordekotza, alokairu, mantenu eta seme-alaben tutoretza alorretarako ere heterosexua-

lei bezalako eskubide eta betebeharrak onartu dizkie homosexualen. Antzeko zerbaitez gertatzen da Danimarka eta Herlandan. Azken honetan bikote homosexualak umeak adoptatu ditzakete esate baterako.

Nazio horietako uhina hona iritsi da, baina beste behin ere politikariak ez daude gizartearen parean, atzeratuta baizik. Hala ere, gizartearen presioa gero eta haundiagoa da berdintasunaren eskubidea aldarrikatzerakoan. Euskal Autonomi Elkarteko edo Euskal Herri mailako daturik ez dago, baina Estatu espainiarrean 500.000 dira bikote heterosexu-  
alak, eta 100.000-200.000 homosexual bikoteak. Hori bai, hauek erregulatu gabe daude arlo guztietan.

Estatu mailako legeak aldatu arte ez da berdintasunik lortuko, baina udalerrri mailan, adibidez, zenbait urrats ematen ari dira, eta bada zerbaitez. Gasteizen, izatezko bikoteen erroldan sexu bereko bikoteak onartzen dira, baina nahiko sinbolikoa dela esan genezake. Izan ere, alderdi politikoen gizartearen mailan jarri behar dute, kalera jaitsi, zer dagoen ikusi eta entzun, eta herritarrei erantzuna eman. Homosexualen eskubideen aurrean ausartak izateko eskatuko nieke, gizartearen zati bat sexu bereko bikotekideen berdintasunaren eskubidea eskatzen ari baita.


**Jordan Illarramendi**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

## Usurbilgo udalaren itxurak

**M**aiz askotan, eta ikusita-koak ikusita, lanak izaten ditugu sinisten. Besterik ezean, zer erremedio! Baina ezin harrituago geratzen ari gara Usurbilgo Udalarari erreparaturik. Azken bolada honetan, zer pentsatu sakonik eman digu bere hainbat jokabidek.

Soldaduska kausa, udal intsumitua deklaratu zen, eta halaxe jarraitzen du usurbildarron pozbidetarako.

Berau udal intsumitu da, baina:

- Euskara bultzatzeko proiektu bati lege-txostena eskatutakoa eta egindakoa. Euskal Herrian eta historian zehar, lehen udala eta bakarra, dirudienez, gisa honetara jokatu duena. Orain bitartean, eta orain ere bai, jakina, euskara normalizatzeko jokabideetan legeari izkin egin behar izaten zaio, noiznahi, beste aukerarik ez dagoelako. Legepean sortutakoak al dira, ba: ikastolak, AEK, EHE, eta beste hainbat eta hainbat euskal erakunde?

- Diario Vasco-n elebakarrean, "españoléz", bere udal-iragarriak agertzen dituen.

Nahiz eta euskal karnetaren (ENA) bultzatzaile sutsu, udal hau berau da bere helburuetarako karneta "españoléz" eskatuz dabilena.

Horrelako hamaika adibide jarriko genituzke bata bestearen segidan, baina labor izatearen ohoretan azken-azkenekora mugatuko gara.

### Udala konstituzio zale?

Kultura- eta hizkuntza-teknikari lanposturako dei egitean, azterketa-gaiak azalduz, honela publikatu du:

"1978 Konstituzio Espainiarra: Adigaia, esanahia eta ezaugarriak. Printzipio nagusiak. Funtsezko eskubide eta betebeharrak".

Bai, jaun-andreok, bai! Gezurra dirudien arren, gure Usurbilgo Udal intsumitu berberau da Espainiako Konstituzioaren bete-beteko ezagutza exijitu duena, kultura- eta euskara-teknikaria izateko; berrogei (40) galdere-tatik bi (2) bakarrik euskarari lotuak, alajaina!; gainerakoak, "Konstituzioaren" jirabueltakoak edota administrazio publiko oro-

korrari lotuak; ez omen zen horrelakorik gertatu, esaterako, Bermeoko Udalean; oraindik areago: lehiakideei aukera osoa eman die euren azterketa euskaraz nahiz "españoléz" egiteko; horretara bada, zergatik ez "frantsesez"? Ez ote, gaur, Euskal Herrian, hiru hizkuntza? Nongo UEMA-herritan gertatu ote, horrelakorik? Zertarako balio du UEMA, Udabiltza eta gainerakotan egoteak?

Hala ere, Usurbilgoa, Udal intsumitua!

Hala ere, horiek abertzale ezinago sutsuak! Egiten dutena egiten dutelarik ere, heurak benetako abertzale zintzo!. Baina hemen ekintzak dira aintzakotzat hartzen direnak; ez hitzak. Nolako fruituak, halako arbola. Geroak hitz egingo ahal du baldinbait! Denbora izango da lekuko.

Azkenik, eta ohar gisa, hauxe esan: hemen adierazitako guztiaren frogagiriak baditugula, inork nahi baditu.

### Hamabost bat herritar

## Kiroldegiko aerobik taldearen kexa

**U**surbilgo Oiardo kiroldegian aerobik egiten dugun emakumeon taldeak, aerobik-eko klaseekin izan ditugun arazoak berri eman nahi dugun.



Oiardo Kiroldegiko giharketa aretoko konponketa lanak direla eta, gure Aerobik-eko klaseak, urrian astebeteko atzerape-nez hasi genituen. Guri zegokigun gimnasia aretoa oraindik ez zegoen prest, eta, ondorioz, goiko pistetan egin genituen lehen bi asteak.

Hirugarren astetako, dagokigun gimnasia aretoan hasi genituen klaseak. Hala eta guztiz ere, tokia ez zegoen prestaturik: kondizioak ez ziren egokienak, izan

ere, konponketa lanak bukatu gabe baitzeuden; leihoen lekuan tablak, zorua amaitu gabe (zoruan hautsa eta hormigoia nagusi), hotza, pintura usain latza, besteak beste.

Guzti hau honela izan arren, aerobik-eko kuota berdin mantendu da eta, gainera, guri inork ez digu inolako azalpenik eman. Guzti honen aurrean, ez al da arduradunaren eginbeharra dagozkigun azalpenak ematea?

Hau da, beraz, gure kexa, ea horrelako baldintzetan berriro kirolik egin behar ez dugun.

**Oiardo kiroldegiko  
Aerobik-eko taldea**

# SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



## Udaltzainen bisita gutxi auzoetan

**A**zken alean Mari Karmen Mitxelenak idatzitako kronikaren gaiarekin jarraituz, ni ere kexuka nator ale honetan. Izan ere, Atxegalden gertatzen den bezala, Santuenean ere kotxea nonahi uzten baita.

Auzotar askok eskubaloi elkar-teak zuen egoitzaren aurrean



dagoen bihurgunean kotxea uzteko ohitura dute. Gainera, askotan bidearen bi aldetan egoten dira kotxeak aparkatuta eta hortik pasatzeko, oso leku gutxi geratzen da.

Auzoko beste hainbat lekutan ere kotxeak edonon uzten dira. Egia da ere, agian aparkaleku

gutxi dagoela gure auzoan. Hala eta guztiz ere, bata ez du beste kentzen. Askotan espaloi gainean utzi behar izango dira kotxeak, lekurik ezean.

Azkenaldi honetan, frontoi inguruan udaltzainak isun asko jartzen ari dira, kotxeak gaizki

aparkatuta egoten direlako. Ondo egiten dute, nahiz eta inori ez gustatu isunak ordaindu behar izatea. Baina, frontoi inguruan jartzen dituzten bezala, auzoetara ere noizean behin joatea eskatuko nieke. Auzoetan, frontoi inguruan bezala, debekatuta dagoen lekuetan uzten baitira kotxeak.

Beraz, kaxkoan "kotxea ondo aparkatzen erakutsi nahi diguten bezala", auzoetan ere lezio hau irakasten hasi daitezela eskatuko nieke.

Nik ere ez dut kotxea ondo uzten eta isunak ordaindu behar izan ditut. Baina, ea denon artean auzo atsegina- goa egiten dugun.

# URDAIAGA

Joseba Zubeldia



## Gauerako argi-disdiratzaileak

**J**akina da auzo honetara igotzen den errepidea nahiko estua dela. Bi auto erraz gurutzatzen dira, baina auto bat eta beste ibilgailu mota bat, kamioia edo autobusa adibidez, gurutzatzen direnean

bietako bat gelditzea ezinbestekoa da.

Errepidearen alde batean ubidea dago eta bertatik pasatzen diren urak nohiz-behinka jarriak dauden arketa batzuetan sartzen dira. Arketa

hauek, beraz, arriskutsuak izaten dira ibilgailuren bat bestea pasatzen uzteko bazterten denean.

Egunez arketa hauek nahiko ondo ikusten dira, baina gaez ez ziren hain erraz ikusten. Horregatik, udalak arketa bakoitzean ilunpetan eta ibilgailuen argiekin oso deigarriak diren bi argi-disdiratzaile jarri ditu.

Erabaki ona izan dela esan behar da, izan ere, arketa horietakoren batean sartuz gero ibilgailuari edota edozeini aberia handi samarra egiteko arriskua baitzegoen.

Bejondeiela!



# KALEZAR

Andoni Udabe



## Itxura berritua barru zaharrentzat

**J**akina da aspaldian Kalezarrek bizi duen itxuraldaketa handia dela. Garai bateko auzo txiki eta xumearekin ez du zerikusirik, hala ere, orduko izpirituak bizirik dirau, baita arima herrikoiak ere. Eraldaketak hizpide hartuta, gauza pare bat azpimarratu nahi nituzke.

Agerikoa da etxebizitza berri ugari egiten ari direla gure auzoan, baina ez da hau oraingoan jorratu nahi dudana gaia. Ana Erreka aldera joko dut. Puntapaxtik hasi eta Ugartetxeberri barrera Olarri azpiraino doan bidexkan eserlekuak jarri dituzte, norbaitek atsedenditxo bat hartu nahi badu edo. Txori kantuak entzu-

nez egunkaria bertan eserita irakurtzea ere ez da batere plan txarra. Ea, bada, aiton-amonak, ja ez duzue aitzakiarik bueltatxo bat ematen paseora ateratzeko! Hori bai, bufanda eta guzti, leku ozpela da gero!

Bestetik, txukunketa batzuk ere aipatu gabe ezin utzi. Antzina eskolaurrea izandakoa erabat garbi utzi dute. Orain arte Udaleko langileek traste ugari beteta eduki dute, txatarleku itxura emanaz. Orain, ordea, dena txukun eta

garbi geratu da, traste hauek guztiak eraman egin baitituzte. Horrela itxuroso dago!

Ikusten duzuen bezala, aldaketak ere ez dira gelditzen hemen, Kalezarrek ez du ezer zarretik: Kanpoa berria, barrua lehengoa.



# ATXEGALDE

## Auzokideari agur

**G**ure auzotar laguna joan zaigu. Mahaspildegi parean karabana batean bizi izan da denbora luzean gure lagun bizarduna. Hor ikusten genuen egunero bere makila haundiarekin autobus edo tren geltokira joaten. "Ze ondo bizi den hau!" esaten genuen gurekiko.



Baina abuztu inguruan karabana erre zitzaion gure mutilari. Goiz batean erre usain handia nabaritu genuen eta karabana zela konturatu ginen. Zerbait itzali gabe utzita edo ez dakigu nola hartu zuen su; bera lotan kanpoan zegoela bakarrik dakigu.

Horregatik, azkenaldi honetan gutxiago ikusten genuen auzoan. Ez genekien nondik nora zebilen. Eta begira, egun hauetan hil denaren albistea iritsi zaigu. Betirako askatasuna lortu duelakoan, agur gure lagunari!

Gaia aldatuz, urtea ziztu bizian doakigu, eta aur-

tengo udazkenari begiratuta ezin kexatuko gara. Egun ederak egin dizkigu uzta jasotzeko. Urtean zehar egindako lan guztiak mereziko du, ezta?

Orain, berriz, egun batetik bestera aldaketa izugarria etorri zaigu. Udako arroparekin genbiltzan eta laster atera ditugu armairuan geneuzkan berokiak. Beharko atera! Ia-ia elurra bertaraino iritsi zaigu. Baita txingorra, hotza eta haizea ere. Begira, bestela, etxe aurrean dagoen makal arbolari zer nolako adarra hautsi dion. Hai-zeak ere indartzen denean ez du txantxarrik. Hala ere, negura ohitzen joango gara. Urtaro bakoitzak baditu bere alderdi onak eta gaztain erreak ze onak dauden, eh?

Jone Eizmendi



# TXOKOALDE

Iñaki Labaka



## Aurten ere betiko martxan

**I**az, angula sasoiak bukatzean, agintariek isunak iragarri zituzten anguleroentzako baldin eta baporeekin segitzen bazuten angulak harrapatzen. Gainera, angula harrapaketa arautzeko legedi berri bat landu behar zela ere esan zuten, aurten indarrean sartuko zena. Jendea beldurtu eta erabat utzi zion angula harrapatzeari, ertzainen hatzaparretan ez erortzeko edo.

Aurten, angula sasoiak iritsi denean, agintariek legedi berria gerorako uztea erabaki eta beti ezagutu izan ditugun baldintza oso berdinetan harrapatu ahal izango da angula,

alegia, bakoitzak ahal duen bezala. Baztarrekoek makina bat kalada eginez gaboneta-rako kazuelatxo bat angula osatzeko (baporeek angulari ibai goialdera joaten uzten badiote, bestela batere ez) eta baporeek, berriz, ibaian gora eta behera bazter guztiak arakatzen, ahal duten guztia harrapatzen. Zenbait gauetan ez da giro izaten.

Ilargi berriarekin lehenengo angulak harrapatu dituztela entzun dut. Baporeetan ibili dira eta Orio eta Aginaga aldean. Nahiz eta oso zaila egon hemen bazterretik, aurten ere lagunen bat saiatuko

dela iruditzen zait. Animo, gabonak gain-gainean ditugu eta.

Bestalde, duela hiru aste, goizeko ordu txikietan trenbideko pasabidean eta tunela bitartean trenbidea konpontzeko lanak egiten aritu dira aste osoan zehar, gora eta behera zarata galanta ateraz. Hori gutxi balitz, Zumeta aurreko trenbideko pasabidea, lehen galipotaz zegoena, orain lurra-ekin utzi dute, egoera nahiko kaskarrean. Amorrua ematen du tren alu bat auzoko geltokian aspaldi gelditzen ez eta auzoek eragozpen hauek jasan beharra.

# KALEBERRI

Ines Kamino



## Oinezkoentzako traba ugari

**A**sko dira herrian egunero-ko paseoa egiten dutenak, goiz partean batzuek, bazkal ondoren besteek eta iluntzera aldera edo egiten dutenak ere badira. Bakoitzak ahal duenean seguruena.

Aukeratutako ibilbideak ere ugariak izaten dira, Arratzain



aldera, Zubietako buelta, Kale-zarkoa... beste batzuek, berriz, nahiago izaten dute Zumartegi industrialde ingurura joatea. Leku nahiko lasaia da, baina, fabrika ugari dago bertan eta, ondorioz, kotxeen joan-etorria ugaria izaten da egunero.

Hau dela eta, arratsaldeko azken orduetan arriskutsua ere bihurtzen da Zumartegi aldera doan zubitxo, ez baitago batere argirik. Gainera, eta gero eta goizago iluntzen duenez, are arriskutsuagoa da iluntze aldera paseoa egitera bertara joatea. Kirol talde askotako gazteak ere bertara joaten dira korrika egitera, eta talde

nahikoa handietan, gainera. Hala, ondo legoke bertan faro-la batzuk edo jartzea, maiz gidariak ez baitituzte oinezkoak ikusten eta oso arriskutsua izan baitaiteke.

Bestalde, azaroaren 13an, goizeko bostak aldera, lapurreta saiakera izan zen Kale Nagusian Apalategik duen kirol dendan. Ateko kristala apurtu eta barrura sartzen saiatu baziren ere, ez zuten lortu, eta bertatik ihes egin behar izan zuten ezer eraman gabe. Inguruko zenbait bizilagunek Ertzantzari deitu ondoren Orioko gainean Renault Express batean atzeraman zituzten marrokiar jatorriko lau gazte. Hala ere, epailearen aurretik pasa eta gero aske utzi zituzten.



# AGINAGA

Oskar Santamaria



## Abiadura handiko trenik ez!

**J**oan den larunbatean kontzertu itzela izan zen Usurbilen eta jende ugari bertaratu zen plazara. Baina hilaren 10ean Aginagan ere izan genuen kontzertua, nahiz eta

hainbesteko oihartzuna ez zuen izan. Irisasi etxeko okupek Abiadura Handiko Trenaren aurkako festa antolatu zuten Aginagako eliza zaharrean.

Festa arratsaldean hasi zen, AHTri buruzko erakusketa batekin, geroko afariaz lagunduta. Azkenik, kontzertua izan zen gaueko 22.00etan hasita. Bertan, espainiar Estatuko hainbat txokotatik etortako taldeak

eta bertakoak aritu ziren, Korrosiva, Kobory, BKV eta Repulsa Social besteren artean.

Jende dezente hurbildu zen bertara, bai Usurbil inguruko jendea eta bai Euskal Herriko hainbat bazterretakoa ere. Valladolid aldetik autobusa ere etorri zen. Giro ederra sortu zen eta jaia goizeko ordu txikiak arte luzatu zela esan beharra dago.

Ea, bada, pixkanaka-pixkanaka modu honetako natur zapalkuntzak hobe ezagutu eta guztion artean galarazteko moduan gauden, edo, gutxienez, halakoen aurka borrokatzen dugun.



# ZUBIETA

Olatz De Miguel



## Gomendio batzuk bidea erabiltzen dugunontzat

**Z**ubietari buruzko artikulu askotan aipatu izan da bertatik ibiltzen diren oinezkoen buruzko gaia; goizean goiz paseatxo bat ematera ateratzen direnak, eguerdia aprobeztatzen dutenak edota arratseko azken orduan, eguzkia bera ere ezkutatu denean, korrika egitera ateratzen direnak, farolaren argiaren pean berauen itzalak jarraitzen dielarik. Leku paregabea, dudarik gabe, naturaz eta berde guneaz gozatzeko.

Baina honek guztiak, eta bereziki iluntzean ibiltzen direnentzat, arrisku handi bat dakar, batez ere orain, iluna lehenago iristen zaigun honetan. Izan ere, lehenago batean

herritar batek komentatzen zidan bezala, farolen argiak hor egon arren, bai korrika edo oinez zein bizikletan dabilzitanak ikustea edo apenas nabarmentzea zaila egiten zaie koitzean doazenei, izugarriko sorpresa har dezakelarik batek baino gehiagok. Are gehiago korrikalaria edo txirriandabillena arropa ilunekin jantzia baldin badago.

Konponbidea, ordea, ez da batere zaila. Izan ere, ez baita ezertxo ere kostatzen zinta disdiratzaile horietakoa edo antzekoak daramazkiten txandal eta zapatilak eramatea. Eta hauen faltan, beti izan dezakegu eskura arropa argiren bat edo beste.

Bizikleten kasuan ere errazagoa da, gurpilan zein kaskoan ere eraman baitaitezke. Seguratasunarekin ezin dezakegu txantxetan ibili, batez ere oinezko edo txirriandabillariak. Azken batean, hauek errepidean ibiltzen diren guztien artean babes gutxien dutenak baitira.

Honez gain, auto gidariak ere beren aldetik zertxobait jarri dezakete, oinezko edo txirriandabillariaren bat somatuz gero, abiadura gutxituz.

Honekin guztiarekin, bide erabiltzaile oro lasaiago joango litzateke eta, era berean, susto bat baino gehiago ere saihestuko genuke.

Ez da horren zaila.

## Aginagako komunitateari lurrak erosiko dizkio udalak

**A**ginagako komunitate-arenak ziren hamar lur zati herriarenak izango dira laster. Udala eta Aginagako komunitatea akordio batera iritsi dira eta hitzarmena sinatzea besterik ez da falta. **Guztira 58.600 metro karratuko azalera dute.**

Gehienak urbanizatu ezin diren lur eremuak dira eta Aginaga eta Urdaiaga aldean daude kokatuta. Aginagako komunitateak udalari eskaini zizkion eta honek guztien balorazioa egin ondoren 6.257.674 pezeta ordaindu eta herri lurrak bihurtuko ditu.

Udalak erosiko dituen hamar lur zatiak hauek dira:

1- Erroizpe inguruan, Igartzazabal baserrira iritsi aurretik, Mandebieta izeneko parajea dagoen 19.554 metro karratuko lur zatia.

2- Puela aldean, Belostegi

inguruan pinuz beteta dagoen 10.675 metro karratuko lur zatia.

3- Urdaigako San Esteban ermitaren atzetik antena pareraino dagoen lur zatia. 450 m<sup>2</sup>.

4- Urdaigako ermitaren iparraldean dagoen Ostatu (aldapa) izeneko lur zatia. 5.470 metro karratu.

5- Aitzmurgil aldean, Gaztain errekararen ondoko lur zatia. 8.480 metro karratu.


6- Lasao eta Fermindegi baserrien artean N-634 errepidearen ondoan dagoen 644 metro karratuko lur zatia.

7- Intxauspe erreka inguruko lur zatia. 675 metro karratu.

8- Urdaigan Ostatu izeneko eremuarekin muga egiten duen 5248 m<sup>2</sup>ko lur zatia.

9- Puela aldean beste lur zati bat. 7.404 metro karratu.

10- San Estebango malda. 4597 metro karratu.



## Salaketa

Udalak erdara hutsean jasotzen dituen idatzia itzuli egiten dizkio bidaltzaileari. Erabaki hau duela urte batzuk hartu zuen udalak eta Estatu Espainiarreko abokatuek erabaki honen aurka errekurtsioa sartu ondoren epaitegiaren epaiaren zain daude orain. Gasteizko udalak, berriz, beste salaketa bat jarri dio udalari. Gasteizko udalak erdara hutsean bidali zuen idatzia bueltatu zitzaion eta honek epaitegira jo du arrazoi hauengatik:

- Erdaraz bakarrik zegoen idatzia itzuli zaielako.

- "Euskal Presoak Euskal Herri-  
ra" anagrama erabiltzen dute-  
lako.

## Bolatokia

Nahi izanez gero herritarrak bola jokoan ibili daitezke hemendik aurrera. Bost hilabete pasa dira Askatasun plaza inauguratu zutenetik, baina bolak eta brillak ez zeudenez orain arte ezin zen bolatokia erabili. Orain, bola eta brillak kaxa batean jarri dituzte bolatokian bertan eta hauek erabili nahi dituenak udaltzaingoan edo Aitzaga tabernan eskatu ditzake giltzak.




**HERRIKO TABERNA**

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17



KALITATEREN  
**EUSKAL  
OKELA**



**Beheko kalea. 4**

**Telf: 943 36 57 42**

**ALKORTA  
AUTOZERBITZUA**

**FRUTAK  
BARAZKIAK  
ETXEKO PRODUKTUAK  
KONGELATUAK**

*Euskal presoak etxera!*

## “Antolatzen ditugun mendi irteeretara herritar gutxi animatzen da”

### ANDATZA KULTUR KIROL ELKARTEA

- Duela 26 urte sortu zuen herriko lagun kuadrila batek.
- Astean behin, asteartean, sei kide biltzen dira “mediku etxean” duten lokalean.
- 80 bazkide inguru dituzte, gehienak herritarrak.
- Andatza eguna, ibilaldi neurtua, eski irteerak eta mendi irteerak dira beraien ekintza nagusiak.

**A**ndatza Kultur Kirol Elkar-  
tea herriko lagun kua-  
drila batek sortu zuen  
duela 26 urte. Hasieran, bi lan  
talde zeuden: batzuk kultura  
arloko ekitaldiak antolatzen zi-  
tuzten (Andatza eguna, Perre-  
txiko eguna...) eta besteek  
mendi irteerak. Gaur egun,  
ordea, irteera desberdinak  
antolatzen mugatzen dira tal-  
dearen ardura eramaten duten  
sei kideak.

Urtea hasterako urte osoko  
egitaraua zehazten dute talde-  
ko kideek. “Ekintza batzuk hila-  
bete jakinetan egiten ditugu  
beti. Hiru historikoak dira, urte-  
tan zehar hilabete jakinetan  
antolatu izan ditugun ekitaldiak:  
martxoan ibilaldi neurtua, maia-  
tzean Andatza eguna eta iraile-  
an Erniora irteera. Beste ekintza  
batzuk ere, eski irteerak, Pirineo-  
tara irteerak eta bizikleta irtee-  
rak hutsik egin gabe buru-  
tzen ari dira azken urteetan, alda-  
tzen dugun gauza bakarra

*lekua da. Hori bai, hilabete  
bakoitzean ekintzaren bat anto-  
latzen saiatzen gara”.*

Gezurra badirudi ere, eski al-  
pino irteerak du arrakasta ha-  
undiena. Beste irteeretan 12-20  
lagun inguru biltzen dira, baina  
eski irteeran 60 pertsonako mu-  
ga jarri behar izan dutela esan  
digute Joseba Pellejerok eta Ima-  
nol Almandozek Andatzako  
kideek. “Duela zortzi urte lehen  
aldiz antolatu genuenean 20 la-  
gun joan ginen, baina gero  
80ra ere iritsi gara”. Horregatik  
iaz muga jarri behar izan zuten.

Beste irteeretan jende bera  
biltzen omen da gehienetan.  
“Beste herrietan ere antzeko  
zerbait gertatzen da. Jendeak  
edonora bere kontura ibiltzeko  
lehen baino aukera gehiago  
ditu orain eta guk antolatzen  
ditugun irteeretara etortzea  
kosta egiten zaie. Gehienetan  
betikoak biltzen gara”. Hala  
ere, 80 bazkide inguru ditu  
Andatza Kirol Kultur Elkarteak.

Taldearen etorkizuna beltzez  
jantzita ikusten dute Josebak eta  
Imanolek. “Jendea federatzen  
bada ere, gure atzetik taldea-  
ren ardura hartuko duenik ez  
datorrela ikusten dugu. Horrez  
gain, herritarrentzat mendi irtee-  
rak antolatu eta jendeak eran-  
tzuten ez duela ikustean, desa-  
nimatu eta ekitaldi arrakastatsue-  
nak bakarrik antolatzea plante-  
atu izan dugu”. Hala ere, orain-  
goz, irteerak antolatzen jarrai-  
tzeko asmoa dute.



# GALARRA GARRAIO

\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

# Usurbildarrak Bertsolari Txapelketa Nagusiko azterketa gainditu ezinean

**L**ehian bizi da bertsolaria: bere buruarekin lehenik, eta beste bertsolariekin ondoren. Plazan biegi egin behar die aurre, baita txapelketetan ere. XIII. Bertsolari Txapelketa Nagusia martxan jartzearekin batera, garai batean txapelketa honetan parte hartu zuten herriko bi bertsolarien hitzekin borroka horren nondik norakoa jakin nahi izan dugu. Santiago Olasagasti eta Joxe Mari Izeta baitira, Nikolas Izeta zenarekin batera, horren lekuko eman dezaketen bakarrak.

Juan Joxe Alkain "Udarregi" k "gure kolegiyuak sagardotegi-yak" zirela aitortu zuen garai batean. Gaur egun, ordea, txapelketa bihurtu dira bertsolariitza-ren unibertsitate, bertan gainditu behar izaten baitute bat-bateko etorri horren azterketa nagusia. Oholtza gainera igo, urduritasuna nola hala menderatu, ahal den bertso onenak abestu... epaileek emandako puntuaketak jartzen du bertsolari bakoitza bere lekuan.

Usurbil bertsolari herria dela esaten badute ere, 1935. urtean lehen Bertsolari Txapelketa Nagusia egin zenetik oholtza gainera igotzen ausartu diren usurbildar bertsolariak ez dira asko izan. Hiru besterik ez: Santiago Olasagasti, Joxe Mari Izeta eta duela bi urte gure artetik joan zitzaigun Nikolas Izeta.

Euskaltzaindiak antolatutako 1965. urteko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalistak erabakitze-ko, lehengo ohiturari jarraituz, 1964ko maiatzean hasi eta urtea bukatu arte Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoan eskualdeka egin zituzten txapelketak. 115 bertsolarik parte hartu zuten kanporaketa horietan, eta tartean zen Santiago Olasagasti Aintzi Berriko usurbildarra ere. "Inoiz ez dut izan bertsotarako afizio haundiegirik, baina aurreko urtean bertso paperak atera nituen eta hurrengo urtean, nik ez dakit nola,



*Bertsolari Txapelketa Nagusira aurkezteko okurrentzia izan nuen". 1964ko azaroaren 15ean Zarautzen izan zen inguruko herrietako bertsolariekin norgehiagokan, baina ezin izan zuen lehen kanporaketa hura gainditu.*

## 1989ko txapelketan Joxe Mari Izeta azken laurdenetan

25 urte pasa ziren herriko bertsolarien bat txapelketa nagusian parte hartzera animatu aurretik. Izan ere, 1989. urteko Bertsolari Txapelketa Nagusiko Gipuzkoako kanporaketara aurkeztu ziren Nikolas eta Joxe Mari Izeta anaiak eta kanporaketa honetan lehen postua eskuratuaz lortu zuen Joxe Mari txapelketa nagusiko azken laurdenetan parte hartzeko txartela.

Garai hartan 22 urte zituen Joxe Mari Izetak. 16 urte inguru zituela hasia zen bertsotan, eta anaiak eta biak etxean bapo egiten zuten bertsotan. Hala ere, beranduxeago Hernanira joaten hasi ziren. "1985. urtean herriz herri bertsolari ikastaro batzuk emanaz ibili zen Xabier Amuriza eta ikastaro haren ondoren Andoain, Urnieta, Hernani eta Usurbil inguruko bertsolariak astean behin elkartzen hasi ginen Hernanin". Txapelketa hari begira, ordea, prestaketa berezirik ez zuela egin aitortu

*digu. "Bilkura hura izaten zen gure prestaketa. Ez dakit gaur egun txapelketetarako nola prestatzen diren, baina gu mahai baten bueltan elkartu eta tarteka lñaki apaizak ekartzten zituen gai edo puntuekin bertso kantari egoten ginen. Han joaten ginen "Dos Cavallos" batean Hernanira".*

Hori bai, txapelketarako doinuekin egunean egoten saiatzen ziren beti. "Guk doinu berriak ez genituen sortzen, baina Amuriza, Enbeita edo Peñagarikanok sortzen zituzten doinu berriak ondo ikasten saiatzen ginen. Bakarkako gaien bat tokatuz gero zortziko haundian edo hamarreko haundian abestu beharrean doinu berezi horietako bat erabiltzeko prest izaten ginen horrela".

## Hasierako agurra prestatuta eramaten zuen

Azken laurdenetan bi saio egin behar izan zituen. Otamendi, Sorozabal, Larrañaga, Arriola, Argiñarena, Haritz Lopategi eta Zendoiarekin batera Hendaia eta Lesakako saioetan aritu zen, baina ez zen finalerdietara sailkatu. "Aurreko egunetan eta egunean bertan ez nuen oso ondo pasa. Oholtza gainera igotzerako, gazte mailako beste txapelketetan bezala, prestatu-

ta eraman nituen hasierako agurrak. Saioan sartzeko segurtasuna ematen zidan. Aurreneko bertsoa behintzat ondo botako dut, gozatu egingo dut, pentsatzen nuen nereko. Agurra bapatean bota nahian hasi eta ondo ez bada ateratzen zure lekutik ateratzen zara”.

Txapelketetan garrantzitsuena konzentratuta egotea da Joxe Mariren ustez. “Normalean lehenengo bertsoa abestu eta hurrengo bizpauru bertsoak nahiko onak ateraz gero, nahikoa lasai botatzen nituen bertsoak. Gozatu ere egiten nuen momentu batzuetan. Hori bai, hasieratik gaizki hasiz gero...”. Txapelketako unerik gogorrena, berriz, kartzelako gaiarekin batera etortzen omen da. “Oso gaizki pasatzen da, oso toki txarra da kartzela, batik bat abesten azkenetako bat zu zarenean. 30 minutu itxaron behar horrek konzentrazioa galtzeko arriskua izaten du askotan. Gaia egoki bideratu eta ondo ateraz gero oso lan polita izaten da, baina gaizki hartzen baduzu oso luze joaten da. Normalean neurri



luzeko doinuak hartzen dira eta hiru bertso abestu behar dira gainera”.

Hala ere, berak doinuarekin izaten zituen arazorik haundienak. “Belarri oso txarra dut eta doinuak erabiltzerakoan aparte-ko lana egin behar izaten nuen. Normalean doinuak bakarrik joan behar du, doinu bat erabiltzeak ez du esfortzu bat suposatu behar. Bat-batean bertso bat pentsatzen egon eta doinua ez bada oso ondo eramaten asko sufritzen da eta gainera bertsoak kalitatea galtzen du, bi gauza baitituzu buruan. Doinuak ahaztuta joan behar du”. Hori izan zen, txapelketaren

ondoren bertsolaritza uzteko erabakian eragin gehien izan zuen arrazoi. “Beti doinuarekin borrokan ibiltzen nintzen ezin nuen bertsoan gozatu”.

Bertsolarien artean zegoen giro onarekin, ordea, gozatzen zuen. “Nahiz eta txapelketa izan, gure artean lehiaketa bat zenik ez zuen ematen. Bakoitza bere abilezia erakustera joaten zen, gure artean ez zen lehiaketa giro hori egoten. Nik bertsolaritzan ez dut inoiz gure arteko kompetentziarik somatu, kontua da epaileen aurrean, entzuleen arnas hotsa gainean duzula mikrofono aurrean ahal dena egin behar duela bakoitzak”.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala abenduaren 16an izango da eta Joxe Marirentzat Andoni Egaña egungo txapelketa da hautagai nagusia. “Irabazten ez zuenean ere berak irabaziko zuela esaten nion beti Egañari. Niretzat, zalantzarik gabe Andoni izango da txapelketa. Txapelketa segurtatzera joanez gero erraz irabaziko du, baina gauza zailak egitera joaten bada...”.

## Azpeitiko premia: 100 bertso baino gehiago utzi dituen Pello Errota eta Udarregiren arteko sesioa

Bertsolari txapelketak antolatutako aurretik, XIX. mendean, Lore Jokoa izeneko bertso-sariketak antolatzen ziren Euskal Herrian. Ez dago haien inguruko berri idatzi askorik, baina Azpeitian izan zena historiako gelditu zen Udarregi eta Pello Errota bertsolariei esker.



Antoine D'Abbadie jaun aberats eta euskal-zaleak euskal festak antolatzeko diru ugari ematen zuen. 1893ko irailean egin zen Azpeitiko Lore Jokoa izan zen horietako bat. Bertsolarientzat sariketa eder bat antolatutako inguruko bertsolari onenak ager-

tu ziren. Izan ere, saria ez zen nolabait: 100 libera.

Arratsaldean izan zen saioa eta udaletxeko balkoitik kantatu zuten bost mila entzule ingururen aurrean. Hasieran beste bertsolari batzuk ere kantatu zuten, baina hiru bakarrik gelditu ziren laster: Joxe Bernardo Otaño, Juan Joxe Alkain “Udarregi” usurbildarra eta Pello Errota, garai hartako hiru bertsolari onenak. Inon ziren gai guztiak arakatu eta eztabaidatu omen zituzten, baina batak bestea ezin menderatuan ibili ziren. Azkenean, jendea Pello Errotaren alde oihuka hasi eta epaileek aho batez saria Pello Errotari ematea erabaki zuten. Festak bukatu ziren, baina inork ez zuen ekaitza zetorrenik igerri trumoa entzun arte, Udarregi bere lehenengo bertso papeira atera arte, alegia.

Nonbait hiru bertsolari onenak, sariketa izan aurretik elkar ikusi zuten eta bai elkar tentatu ere, esanaz: “saria partitza izango diogu

onena...”. Aurrez inork ez du jakiten gauzak nola joango diren, eta ondorengo bertsoan agertzen denez, Udarregi, bera onentxoena izanda, ez zuen saria banatzeko gogo haundiegirik.

Pello Errotak, ordea, saria irabazi ondoren erdia Otañori eman omen zion, eta Udarregiri ezertxo ere ez. Udarregi enteratu zenean oso minutu gelditu zen, eta bai Usurbil aldean Pello Errotak arpa jo zionean ere. Horra nondik sortu zen Euskal Herri osora zabaldu zen bertsolarien arteko sesio ezagun eta bederatzita puntuko bertso sailik ederrena.

Sesio handia izan zuten biek. Udarregi lau bertso sail jarri zituen, hiru aldiz erantzun zion Pello Errotak (sail bat bere semeak eta beste bat bere anaiak jarriak), Otaño ere erantzun zion eta azkeneko bertso jartzaile askok parte hartu zuten. Udarregi hil ez balitz sesioa eta haserrea luzatu egingo zen ziurrenik.

## Bost musika talde, 5000 pertsona inguru

**G**au ilunean bidea nahi-koa argitu zen pasa den azaroaren 17an Ikasle Abertzaleak taldeak antolatu zuen ikasle egunean. Ikasleak, irakasleak, langileak... guztira 5000 pertsona inguru gerturatu ziren RIP, Flitter, Su Ta Gar, Berri Txarrak eta La Polla taldeek eskaini zuten kontzertura. Jaialdia arrakastatsua izan bazen ere, aurrera begira ikasle alternatiba garatzeko lan egin beharra dagoela azpimarratu dute antolatzaileek.



4000 sarrera inguru saldu bai, baina 5000 pertsona izango ziren frontoi inguruan goizeko 2.00ak aldera ateak ireki zituztenean. Bost musika talde izan ziren ohol-tza gainean, zein baino zein ezagunagoak, pelotalekua, dema plaza eta inguruko tabernen ohiko itxura, berriz, erabat eraldatu zuen Ikasle Abertzaleak taldeak "Gau ilunean, bidea argitzen ikasle alternatibaz" lemapean antolatutako ekitaldiak. Baita herriko sarrerak ere, Santueneako zubira iritsi baino lehen, Troia inguruan eta Aginagan ekitaldi hau oztopatu nahian Goardia Zibilaren kontro-



lak baitzeuden.

RIPek hasi eta La Pollak amaitu zuen jaialdiak ez zuen etenik izan. Talde bat ohol-tza gainera igo orduko leporaino betetzen zen frontoia; dema plazan jarri zuten "txozna" erraldoia, berriz, apenas hustu zen goizeko 6.00ak aldera arte. Inguruko tabernetan, berriz, ez zen su etenik izan eguna argitu eta jende-ari gosaltzeko gogoa sartu bitartean. Honela bada, ekitaldia positiboki baloratu eta ikasle mugimendua indartsu zegoela argi gelditu zelakoan zeuden antolatzaileak eta azaroaren 28an unibertsitate mailan deitu



duten greba orokorra izango da hurrengo erronka.

Ekitaldi honen aurrean herritarren erantzuna ona izan dela azpimarratu nahi dute Ikasle Abertzaleak-eko kideek, "herriko jendea ere pozik zegoela egiaz-tatu ahal izan genuen beraiekin hitz egiterakoan". Hala ere, ez zen dena positiboa izan, beste batzutan gertatu izan den bezala Patrin jatetxearen aurrean dagoen kiosko kristal bat pus-

### Ur hornidura

**U**surbilgo biztanleriaren zati haundi bat hornitzen duen Añarbeko Mankomunitateko ur araztegia azpikontratazio bidez ari diren 41 langile bi orduko lanuzteak egiten hasi ziren pasa den azaroaren 5ean, eta horrekin jarraitzen dute oraindik ere. Izan ere, azaroaren 14an langile hauen kotxe karabana bat ibili zen herriko bideetan bizi dituzten lan baldintza kaxkarrak salatuz. "Azpikontratatuta lanean ari garenok baldintza oso txarrak ditugu eta diskriminaturik gaude Añarbek zuzenean kontratatzen dituen langileen aldean". Duela 12 urte hasi zen Añarbeko mankomunitatea ur araztegiako esplotazioa azpikontratazio bidez kudeatzen eta soldata duina eskatzen dute, "lan berdina eginda zuzenean kontratatutakoak baino askoz ere gutxiago kobratzen baitugu".

Bi orduko geldialdiek ez dute Usurbilgo ur hornikuntzan eraginik izango, baina idatzizko erantzun zehatz bat jasotzen ez badute greba muga-gabea egiteko prest daude langile hauek.

### Suizidioa

Joan den azaroaren 14an 43 urteko S.C.A. usurbildarra hilerri berri ondoko zuhaitz batean soka batez zintzilikatu-ta aurkitu zuen udaltzaingoak goizeko hamaikak aldera. Arratzain bidean zihoan herritar batek gizon bat zuhaitz batean soka batez zintzilikatu-ta zegoela esanaz etorri zen udaltzaingoarengana eta hilerri berritik 25 metrora dagoen hariztira inguratu zirenerako, zuhaitzetik zintzilik bere buruaz beste egin ondoren, hilda aurkitu zuten usurbildar hau.

## Giza eskubideen defentsarako batzordea

**I**par Euskal Herrian bizi diren hamazazpi euskal herritarrek espultsatuak eta torturatutak izateko duten arriskuaren aurrean, 01-11-14ean bildu zen udaleko Giza Eskubideen Defentsarako Batzordea kasu horretan aurkitzen den Xabier Miguel Ezkerra herritarraren egoera aztertzeko. Bertan alkatea, Batasuna eta EA-ko zinegotzi bana eta Senideak-eko kide batek hartu zuten parte. EAJ gonbidatua izan zen arren, ez zuen ordezkariirik bidali.

Azken informazioa jaso ondoren, kasuaren jarraipena egitea, adi egotea edozein gorabeherarik izatekotan inizatibak hartzeko eta espultsio aginduaren

aurka ezarriko diren errekurtsu juridikoen gastuak udalak bere gain hartzea erabaki zen.

Bilera berean Enkarni Martinez-en tortura salaketaren egoeraz ere informatu zen. 1994ko ekainean jasandako tratu txarregatik jarri zuen salaketa partikularra artxibatua ("sobresido") izan ondoren. Bere garaietan udala herri salaketa gisa aurkeztu zenez eta oraindik inolako erantzunik jaso ez duenez, bide horretatik salaketak aurrera egiterik baduen aztertze eskakera egingo zaio udalak izendatua duen abokatuari.

Bestalde, hasieran aipatutako espultsio arriskuaren aurrean

manifestazioa burutuko da datorren larunbatean, azaroak 24, Baionan euskal herritarrak Euskal Herrian bizitzeko duten eskubidea aldarrikatzeko. Autobuserako izena emateko zerrendak Aitzagan, Txiribogan eta Bentan jarri dira.



**P**eña Zubeldiak deituta, azaroaren 10ean Aginaga sagardotegian 70 herritar inguru bildu zen Zubeldia anaiei omenaldi xumea eskaintzeko. Biekin denboraldi amaierako bazkaria egin zen. Joseba Zubeldia omendu zuten batez ere datorren urtean Euskaltelekin profesional mailan egoteko aukera izango baitu. Urte luzeetan zehar eginiko lanaren fruitua ikusi du Josebak. Bertsolariak, trikitilariak, lore-sortak eta giro ezin hobeak ez zuten hutsik egin.



**A**zaroaren 10ean Abiadura Haundiko Trenaren aurkako asanbladak eta Txokoaldeko okupen kolektiboak Aginagako eliza zaharretan kontzertua antolatu zuten aurretik bertan herri afaria eginez. Kontzertuan bost taldek parte hartu zuten: Korrosiva, Kobory, D.K.V., Repulsa Social eta Chicharrica. Bertan AHTaren informazio-salmenta postua ere jarri zuten. Aurrekusita zeuden zenbait autobus egun horretan egin zuen elurragatik ez ziren iritsi.

## Kalkos kopisteria

- ☞ Fotokopiak
- ☞ Fotokopiak koloretan
- ☞ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ☞ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ☞ Planoen kopiak (AO arte)
- ☞ Ordenadoreko lanak
- ☞ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ☞ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea  
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55



## TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



**Marilo Irureta**  
*bankaria*

Jendea kutxazainetara joaten denean, eurotan bakarrik ematen dio eta galduta ikus-tean guregana etortzen da. Galdera asko egiten dizkigute. Jendea mentalizatu gabe dago, baita gu ere. Dena kalkulagailu bidez egiten dugu.



**Izaro Sarasola**  
*tabernaria*

Prestatzen ari garela uste dut. Tabernako martxan nabarmenduko da. Hasieran, kezka asko izango dituzte herritarrak, ea ondo kobratu diozun eta abar. Baina, pixkanaka hartuko diogu.



**Mikel Aranzazistroke**  
*merkataria*

Ni ez nago hain preparatuta, baina jarriko garela uste dut. Orokorrean, uste dut jendea ez dagoela mentalizatuta, baina bi hilabeterekin ohitzeko denbora badugu. Hala ere, hasieran beldurra izango dugu.



**Petra Maria Orella**  
*loteria-saltzailea*

Pezeta hasieratik kendu behar zutela uste dut. Euroa eta pezeta batera zirkulatuko duten bi hilabeteak oso nahaspilatsuak izango direlako. Errezagoa izango zen era horretara. Guk ikas-taro bat egin genuen, baina ez da nahikoa izan.

**Prest al  
zaude euroa  
indarrean sar-  
tzen denera-  
ko? Zeren bel-  
dur zara?**



**Ana Olasagasti**  
*aseguru-agentea*

Guk eskuz ez dugu ezer kobratzen, dena domizializatu-ta daukagu. Ordenagailuak prezio guztiak eurotan eman-go dizkigu, eta ez dut uste ar-zorik izango dugunik. Urtarrila-ren 1ean euroarekin bakarrik arrankatzea hobe izango zen.



**Joxe Martija**  
*herritarra*

Lehen ere zentimoetara ohitu ginen eta orain arazorik ez dugula izango uste dut. Horregatik, euroarekin ere moldatuko naiz. Gainera, nahiko mentalizatuta gaude.



**Aintzane Aizpurua**  
*administraria*

Administrari bezala, ez naiz gai ikusten enpresa bera ere ez dago-elako prest. Urtarrilaren 1etik aurrera, faktura guztiak eurotan egingo ditugu, baina eskuz ordaintzean pezetetan egin daiteke. Hor nahasketa asko sortuko dira.



**Mari Jose Bereziartua**  
*udaletxeko kontu-hartzailea*

Ordenadoreetako programa asko prestatuta daude, eta hori erreziboetan eta abar ikus dezakegu. Gorabehera batzuk izan daitezke, baina ez dira larriak izango, ohitura kontua izango da. Liberetara edota beste monetaren batera aldaketa egitea bezala izango da, eta nork ez dugu egin inoiz horrelakorik?



# Behobia-Donostia: garrantzitsuena amaitzea izaten den lasterketa

**B**ehobia-Donostia lasterketak badu xarma berezi bat. Urtero-urtero, beste herrietan bezala, asko izaten dira 21 kilometroak egitera animatzen diren usurbildarrak.

Txipa dela eta ez dela bu-ruhauste dexente izan badira ere, guk lortu ditugun datuen arabera 30 usurbildar iritsi ziren, azaroaren 11n Boulevarren zegoen helmugara. Aspaldiko

partez, gainera, lau emakume ziren tartean eta Rosa Uribek emakumeeen mailan 31. pos-tua eskuratu zuen. Hemen dituzue gure eskuetara iritsi diren usurbildarren datuak.

## SAILKAPENA

247	MAIZ PAGOLA, IGOR	1:14:47	2989	SASIAIN MARTINEZ PELLO	1:34:00
256	CARBAYEDA ECHEBERRIA, JON	1:14:55		PAGOLA GOLDARAZENA PATXI	1:34:00
561	ANGULO ALMEIDA, TOÑO	1:19:07		SOROA UDABE, JON	1:34:00
608	TAPIA LIZARRAGA, JON	1:19:37	3258	ERRASTI UBERA ANA	1:35:17
629	MOLINA CUESTA, AGUSTIN	1:19:46	3373	UNDIANO KORTA, XABIER	1:35:53
763	LERTXUNDI AZKUE, KOLDO	1:21:01	3701	EIZAGIRRE ZALDUA, ARANTZA	1:37:24
856	MAURA DORADO, MANUEL JOSE	1:21:47	3945	UNANUE LOPEZ, AITOR	1:38:39
1012	URDANGARIN ZUMETA, PEDRO	1:22:55	4058	JAUREGI URDANPILLETA, AITOR	1:39:09
1233	OTAMENDI GAZTAÑAZPI, Jº MARI	1:24:21	5324	ROTETA BALERDI, ESTEBAN	1:45:38
1610	REZOLA EIZAGIRRE, JOSEBA	1:26:31	5931	ASKORRETA ERDOZIA, JOSEBA MIKEL	1:49:16
	ALMANDOZ ODRIOZOLA, IMANOL	1:26:09	5938	ASTIAZARAN AIZPURUA, GORKA	1:49:20
1676	AÑORGA UNANUE, IÑAKI	1:26:59	6724	OLAIZOLA JAUREGI ISAAK	1:54:59
2143	URIBE NAVARRO, ROSA	1:29:17	6948	OTERO MARTIN, ASIER	1:57:01
2285	OLANO ZUGASTI, ANDONI	1:30:06	7351	UGARTEMENDIA BRAVO, JON	2:02:24
2404	PALACIOS ITURBE, DANIEL	1:30:51	7550	DIEZ ARANBURU, ARANTZA	2:06:50

## Igor Maiz Pagola

### “Hau da, niretzat, dagoen lasterketarik onena”

Zenbat aldiz parte hartu duzu Behobia- Donostian?

Aurtengoa seigarrena izan da. laz arazo fisiko batzuk izan nitue-nez huts egin nuen, baina aurreko bost urteetan bertan izan nintzen.

Gogoratzen al zara zer denbora egin zenuen lehenengoan?

Ordubete eta hogeitabederatzik minutu, eta orduz geroztik denbo-rra hori jaisten joan naiz. Hala ere, 1997an Gaintxurisketan uztzekotan egon nintzen, baina azkenean bukatzea lortu nuen.



Aurten zure marka hautsi eta usurbildarren artean onena izan zara.

Ni ez naiz marka egitera joaten, ordubete eta hogeitamar minutu-tik jaitea izaten da nire asmoa. Aurten eguraldi oso ona zen, frex-ko egiten zuen, haizea motela... Oso gustora egin nuen korri eta nire marka ia hiru minutuz jaitea lortu nuen.

Non pasatzen da gaizkien?

Aurten ondo joan naiz, baina nire ustez Gaintxurizketa gaina eta Mirakruz gaina igotzea gogo-rra izaten da. Bestela ibilbidea oso ondo dago.

Hala ere jendeak asko laguntzen du ezta?

Bai, batez ere ibilbidean dau- den bi gaintetan. Ezin baduzu ere bultzatzen dizute eta kontura-tzen zara animo horiei korrika erantzun behar diezula. Niretzat Behobia-Donostia da dagoen laisterketarik onena.

## Emaitzak

### Futbola

- Azaroak 10-11
- Usurbil F.T 0 - Ostadar 0 (Nesk.)
- Usurbil F.T 1 - Santo Tomas 2 (2. ju.)
- Intxurre 7 - Udarregi 5 (Infan.)
- Azaroak 17-18
- Tolosa 1 - Usurbil F.T 0 (Nes.)
- Luberri 1 - Usurbil F.T 2 (2. j.)
- Udarregi 13 - La Salle 2 (Infantilak)

### Eskubaloia

- Azaroak 10-11
- Urduliz 24 - Usurbil K.E. 22 (2.N.)
- Arrate txiki 22 - Arrasate 13 (jub.)
- Muskiz 15 - Usurbil K.E. 10 (Nesk.)

### Areto futbola

- Azaroak 10-11
- Martu Kirol 4- Txotx 4
- Lugaritz 11 - Peio Arrain. 3

### Azaroak 17-18

Txotx 3- Ayete 2

### Hondartzako futbola

- Azaroak 3-4
- Frudisk 5 - Aginaga Sag. 0



# Eskola euskalduntzeko ikasle alternatiba, aurrera begirako erronka

**A**zaroaren 17an Ikasle Abertzaleek (IA) deituta, 5.000 gazte inguru elkartu ziren Usurbilen, ikaslearen nazioarteko eguna ospatzeko. Euskal Ikasleon IV. Biltzar Nazionalak eskola euskalduntzeko ikasle alternatiba onartu berri du eta horixe izan da aurtengo ikasle egunaren aldarrikapen eta mezu nagusia. Noaia! hama-boskaria IAko kide Alex Marañon bilbotarrarekin hizketan egon da biltzar honen ingurukoak eta Madrilgo gobernuak onartu berri duen Unibertsitate Legea dela eta, euskal ikasle mugimendurak aurrera begira planteatzen dituen ekimenak ezagutu asmoz.

**Aurtengo ikasle egunaren lema "gau ilunean, bidea argitzen ikasle alternatibaz" izan da.**

Euskal Ikasleon IV. Biltzar Nazionalaren amaieran gaudenez, hor kokatzen dugu aurtengo lema. Izan ere, biltzar honen zeregin nagusia eskola euskalduntzeko ikasle alternatiba garatzea izan baita. Prozesu jarrai bat izan da.

## Nolakoa izan da prozesua?

Hasiera batean, ikastetxe eta fakultate ezberdinetan eztabaidak eman ziren, azaroaren 2an Donostian bilkura nazionala egin genuen eta joan den astean herrialdeko bilerak egin genituen manifestaldiekin. Hilabete bateko prozesua izan da. Helburua eskola euskalduntzeko ikasle alternatiba finkatzea, adostea eta aurrera begirako ekimenak zehaztea izan da.

## Zertan oinarritzen da Ikasle Alternatiba hau?

Alternatibak post puntu ditu: Lanbide Heziketaren Euskalduntze Plangintza Nazionala, Unibertsitatearen Euskalduntze Plangintza Nazionala, bestelako ikastetxei dagokien Euskara Eskolara izeneko plangintza eta Euskal Kurrikulumerantz Abiatzeko Oinarritzko Proposamena; bata irakaskuntza



ertainari begira eta, bestea, unibertsitateari begira. Bosgarrenik, Euskal Herri osoa barne hartuko duen hezkuntza eredu bateruntz urratsak eman daitezen jasotzen duen proposamena; honen inguruan batetik, Euskal Herrian ikasteko eskubidearen inguruko agiria atera dugu eta, bestetik, Euskal Herri osoa barne hartuko duten instituzioak irakaskuntza mailan martxan jartzea aurreikusten dugu. Horien artean, unibertsitate mailan, Barrutia, eta ertainetan, Eskola Kontseilu Nazionala.

## Bost puntu hauek garatu ahal izateko zeintzuk dira planteatzen dituzuen bitartekoak?

Urtarriletik aurrea ikasle alternatiba ikastetxe eta fakultatetan borroka tresna bilakatzea da gure helburua. Horretarako, Euskal Herri mailan alternatiba honen aldeko kanpaina eta martxak egingo ditugu. Hala ere, helburua da bost alternatiba horiek ikastetxeetan garaipenak lortzeko erabilteak. Hauek ez dira aldarrikapen soiletan geratzeko, baizik eta borrokarako tresna izateko. Borroka molde ezberdinak plan-

teatzen ditugu; autogestioa eta intsumisioa edo desobediencia ekimenak.

## Unibertsitate Lege berria dela eta, zalaparta handia egon da.

Lege hau eraso izugarri izan da. Estatu mailan ere ikasleek bultzatuta greba egon zen. Gure usteetan bidea ez da Madril beste lege bat eskatzea. Lege honi intsumisioa egin behar diogula eta erantzun bat eman behar zaiola garbi daukagu. Baina, erantzuna ez du izan behar Madril beste lege bat eskatzea. Gu ez gaude klabe horretan, gu hezkuntza eredu propio bat eskatzen ari gara. Euskal unibertsitateak, horren baitan sindikatuak, langile, irakasle eta ikasleok gure lege unibertsitate propioa eskatzen ari gara. Baina, kontuz! lege hori, nazionala, Euskal Herri osorako eta Euskal Herriko kanpus eta unibertsitate guztientzako ballagri izango dena izan behar du. Hori dela bidea uste dugu. Horregatik, azaroaren 28rako greba orokorra deitu dugu.

## Hala ere, hor parez pare jartzen dira zuen aldarrikapena eta Gasteizko gobernuaren planteamendua.

Gasteizko gobernuan ere bi jarrera daude; batetik, EAJk legea onartzen duela esan du aldakuntza batzuekin, eta, bestetik EAK lege propio bat eskatzen du. Baina, lege propio hau nola ulertzen da? Hiru herrialdeentzako legea da, egungo markotik bideratu nahi dutena. Gure ustez, hori jadanik gaudituta dago. Euskal Herriko unibertsitatearen arazo komuna daukagu, hau da; ez daukagu unibertsitate propioa eta gure hezkuntza eta kultura eskubideak ez daude bermaturik. Gainera, nork egin behar du unibertsitate lege hori? Hor eragileak gaude eta unibertsitate komunitate osoak egin behar du, eta ez gobernuak. Gasteizko gobernu berriz ere iruzurra egiten ari da.

## Sexu bereko bikotekideak berdintasuna eta ezkontzeko eskubidea lortu nahian

**G**ay eta lesbianak berdintasuna lortu nahian dabilta. Kolektibo hauek kideek beste edozein eskubide berak izatea eskatzen dute, hala nola ezkontzeko garaian ere besteek izan dezaketean aukera bera izatea. Udalean ez dago oraindik sexu bereko bikotekideen errolarik, baina prestatzen ari diren izatezko bikotekideen udal erregistroa sortzen den udalarekiko beste herriarrek dituzten eskubide eta aukera berak izango dituzte.

Beste biderik ezean, erregistro hori izango da sexu bereko bikotekideentzat administrazioaren aurrean bere harremana "ofiziala" izateko aukera bakarra. Honela, bakarka aurkeztuta izango ez litzuketen abantaila batzuk izango litzukete udalaren aurrean: bizikidetzaren egiaztatzerakoan, tramitazioak egiterakoan etab. Bestalde, etorkizunean udal eremua gainditzen duen honelako erroldaren bat egingo balitz udalakoak frogatzea gisa balioko luke.

Errolda horrek, dena den, ez dizkie ezkontza batekin emango lizkiekeen eskubide guztiak emango. Ezkontzeko eskubidea lortzea da gay eta lesbiana kolektiboaren eskaera nagusia. Beste edozein bikotekide duen eskubide bera lortu nahian dute, hots, kontratu mota

bera izateko aukera izatea. Hala ere, Espainiako kongresuan bikote homosexualen ezkontzeko eskubidea izan zezaten Kode Zibila aldatzeko proposamena atzera botatzen PP, CiU eta CC alderdien kontrako botoekin.

Bestalde, Gay, lesbiana eta transexualen eskubideen alde diharduten Gehitu eta Hegoak elkarteek udalean aurkeztu duten mozioa eztabaidatuko da datorren azaroaren 27ko udalbatzan. Bertan, eskaera hauek egiten dituzte:

- Etorkizunean izatezko bikotekideen udal erregistroan inskribatzen diren sexu bereko bikoteek, hala nahi izanez gero, beren elkartzea zeremonia baten bidez ospatzea ezkontza zibilak egiteko erabiltzen den gelan.

- Udaletxean egiten diren ezkontza zibilentzat duten disponibilitate eta parte hartze baldintza berberekin alkateak eta zinegotziek izatezko bikoteek eskaerak litzatekeen zeremonietan parte hartzea.

- Sexu desberdinetako bikoteek duten baldintza berberekin sexu bereko pertsonen osatzen duten bikoteei ezkontzeko aukera emateko Estatuko legegileei Kode Zibila lehenbailehen alda dezatela eskatzea.

### Batasuna

Pertsona bakoitzaren sexu aukeraketa oinarritzko eskubidea da, eta horren ondorioz, gure ustez, bikote iraunkorra egitea desiratzen duen orok du ezkontzeko eskubidea, eta noski, hori ospatzeko ere. Aukera guztiak dira errespetagarriak.

Udalean ahal dugun neurrian eskubide horren alde egiteko prest gaude, eta lanean ere hasiak gara ja. Izatezko bikoteen erregistroa prestatzen ari gara, gay, lesbiana eta transexualen eskubideen alde ere mozio bat babestuko dugu hil honetako plenoan. Gure partez aukera guztiak berdin errespetatuko ditugu. Udal erregistroan bikote bezala azaltzeko aukera izango da laister batean. Bestalde, legeak atzerrian egiten diren bitartean, Madrilan kasu, ezin izango dute aipatutako kolektibo horiek legalki beren ezkontza egin, dituen ondorio guztiekin.

### Eusko Alkartasuna

Sexu bereko bikotekideen ezkontza nola ulertzen dugunaren arabera ideia ezberdinak defendatu daitezke. Honek ekartzen dituen konpromezu eta eskubide guztiak edukitzea, sexu bereko bikote batekin elkarrekin sortu nahian duen legezko lotura modura ulertzen bada ezkontza, ondo irudituko litzai-guke. Gizarteari, eta gure kasuan, Usurbilgo herriari komeni zaigu beraien proiektua finkotasun eta segurtasun batekin aurrera eraman ahal izateko era zuzen batean bikote mota hauek legeztatuta egotea. Beste herri eta hiri batzuetan onartu den bezala gure herrian onartu beharko litzateke bikote hauen zerrenda ofiziala, honekin eman dezakeen babes ofiziala eman ahal izateko.

Hala ere, ezkontza inorentzat eskubide bat denik ez dugu uste, sexu ezberdineko bikoteen aukera bat besterik ez da. Bestalde sexu berdineko bikote kideen ezkontza guk lehen esan dugun moduan ulertzen bada, horrelako gaiari aldeko iritzia emateko ez genuke inongo eragozpenik izango.

Noaua! Aldizkariak udaleko alderdi guztiei eskatu die gai honi buruzko iritzia, baina EAJ-PNV eta PSOE taldeek ez digute beraien iritzia bidali.





*"Azken sei-zazpi urte hauetan nire bigarren etxea (lehenengoa agian) uztera noala esatera natorkizue oraingoan. Hainbat aldiz zuen sukalderraino, komuneraino ere bai noski batzuetan, sartu izan dira nire hitzak, baina laister nire aho zuloan gelditu beharko dute. Badoa, bai, paparazzi fama hartu duen "fotografoa" ere, a ze pakea esango dute zuetako batzuk. Ea ba, nire lekua hartzera animatu eta herritarrei "gerra" emateko norbait topatzen dugun. Hala bada, herriko aldizkaria etxean lasai-lasai irakurtzeko moduan izango naiz".*

**N**oaua! Kultur Elkarteak kazetari bat behar du aldizkarirako. Egun osoko lan-kontratua eta Noaua! hamaboskariko kazetari nagusia izatea eskaintzen da. Argibide gehiago nahi izanez gero, deitu 943 36 03 21 telefonora.

Beraz, badakizu! lan bila bazabiltza, Noaua!n baduzu aukerarik.

## Merkataritza euskalduntzeko geroz eta konpromiso gehiago

**M**arkataritza euskalduntzeko kanpainak aurrera jarraitzen du. Azken alean lehen zortzi konpromisoen berri eman genizuen. Kopuru hau handituz doa, izan ere, bi aste hauetan egon garen 15 saltokietatik guztiek hartu baitute konpromisoren bat edo beste.

Saltokian dituzten idazkiak (errotulo, ordutegi, zigilu, idazki propioak, menuak...) euskaraz jartzeko konpromisoa hartu dutenak honako huek dira: **Bahymue Elektrogailuak, Fernando Pinturak** eta **Rubio Doktorea Hartz klinika**.

Bestetik, euskararen ezagutza hobetzeko konpromisoa hartu eta aurrerago antolatuko diren euskara ikastaroetan izen emateko animatu direnak, berri,

honakoak dira: **Aldamu zapata-konponketa, Bahymue Elektrogailuak, Ekaitz argazkidenda, Kinkildegia, Lizardi Liburudenda** eta **Ritx Okindegia**.

Azkenik, hirugarren multzo batean sailkatu ditugun artean, euskarazko harreman idatzien sarea sendotu nahi dutenak daude. Hau da, udaletxe, finantza erakunde eta abarretan idazkiak euskara hutsez jasotzeko prestutasuna agertu dutenak hauek dira: **Argilan, Ekaitz Argazkidenda, Iratze Belardenda, Kinkildegia, Kribetzi, Laurok, Lizardi, Mahuka, Pauma** eta **Txikilino**.

Laster geraturatuko gara zurerara ere. Hala ere, badakizue non aurkituko gaituzuen: **Noaua!ko egoitzan**.

## Azken pezeta/libera eta lehenengo euroa euskararen alde

Kontseiluak ekimen berria jarriko du martxan abenduaren 15ean, pezetak eta liberak desagertzearekin eta euroa erabiltzen hastearekin batera. Ekimen horren bitartez, herritarroi euskararen alde azken pezetak eta liberak, eta eskuan izango ditugun lehenengo euroak ematea eskaintzen zaigu. Kanpaina honen helburua Kontseiluaren egitasmo desberdinak aurrera atera ahal izateko dirua biltzea da.

Horretarako, herrietako euskalgintzako elkarteetara jo dute laguntza eske. Usurbilen **Noaua! Kultur Elkarte**a, **AEK** eta **Udalarekin** jarri dira harremanetan kanpaina hau egin ahal izateko. Hori dela eta, hiru elkarteok **azaroaren 28rako Noaua!ko egoitzan bilera deitu dugu, arratsaldeko 19:00tan**, kanpaina honen berri emateko.

## Lehiaketa



## Non dago iturri hau? Zer lekutan?

Asmatzaileen artean  
Tragoxka tabernan bi  
personentzat afaria  
zozketatuko dugu

### 122. aleko erantzuna



Etxebeste kalean behera  
joatean aurrera begiratuko  
bazenute, markesaren jau-  
regiari leiho bat falta zaiola  
ikusi zenukete.

#### Irabazlea

Enaitz Juanena Muguruza

#### Saria

Bordatxo tabernan bi  
personentzat afaria

P A T R I

J A T E T X E A  
Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



## Urtinea

*Loreak - Lore landareak*

*Lore sortak - Koroak*

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

Zure publizitatea  
hemen jarri nahi  
baduzu, deitu  
**943 36 03 21**  
telefonora!



## MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen  
modako arropa guztia  
hemen aurkituko duzue

*Udazkeneko moda berria zuretzat!*

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06



Giltzak  
kopiatzen  
ditugu!

## ALDAMU

Zapatak, kanpinak,  
kremaierak (poltsak,  
zamarrak, galtzak...)

Kale Nagusia, 2 Telf: 943 37 27 95

## AZAROAK 23 ostirala

- **Zama eta 40 de Fiebre** Lasarterko taldeen **kontzertua** Akerra gaztetxean.

## ABENDUAK 1 larunbata

- **Storbais** talde ermuarrak eta **Neü** talde zarautzarrak **kontzertua** eskainiko dute Akerra gaztetxean.

## OHARRAK

- ✎ Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424
- ✎ Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- ✎ Betaurreko batzuk galdu ditut anbulategi inguruan funda gris batekin. Aurkitu dituenak udaltxera eraman ditzala.
- ✎ Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara.
- ✎ Giltza batzuk galdu ditut Eguzkitzaldea inguruan. Aurkitu dituenak 652718884 telefonora deitu dezake.
- ✎ Neoprenozko traje bat dut salgai. Rip Curl marka eta L taila. Prezio interesgarria. Telf. 653728059.
- ✎ Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitoreak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonoetara.
- ✎ Neska bat eskaintzen da gaue-tan umeak zaintzeko. Telf. 943 371447 (Belen)
- ✎ Umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska bat behar dut. Lan ordutegia goizeko 8.00etatik 14.30etara. Telf. 943366952
- ✎ Pisukide baten bila gabiltza Lizarran pisua osatzeko. Interesatuak deitu 699 876 702 telefonora.
- ✎ Trialeko motoa salgai. Montesa Cota 335. 150.000 pezeta. Interesatuak gauean deitu 943 370767 telefonora.
- ✎ Usurbilgo taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. Interesatuak deitu 943 360080 telefonora (Marijo).
- ✎ Neska bat eskaintzen da arratsaldetan ordu pare batez haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 366485 telefonora.
- ✎ Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.
- ✎ Herriko taberna batean lan egiteko neska edo mutil euskaldun bat behar da. Telf. 943 371042.
- ✎ Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469
- ✎ Edozein ohetarako balio duen erabilgi gabe dagoen trapezio bat salgai. Deitu 943 835441 telefonora (Begoña).
- ✎ Pertsona bat behar dugu astean 4 orduz etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu 943 370299 telefonora.
- ✎ Pisu bat dut salgai. Deitu 13.00etatik 15.00etara edo 20.00etatik aurrera 943 372983 telefonora (M<sup>a</sup> Angeles)

## HERRIKO ELKARTEEN ARTEKO MUS TXAPELKETA

Abenduaren 1ean, arratsaldeko 16.00etan jokatuko dira Peña Pagola elkartearen, Herriko Elkartearen arteko IV. Mus Txapelketa-finalak. Bertan, elkarte bakoitzean izandako txapelketan finalera iritsi diren bi bikoteek parte hartuko dute.

Hauexek izan dira txapelketan parte hartu duten elkarteak:

- Aginaga elkarte
- Aitzaga elkarte
- Andatzpe elkarte
- Eguzki elkarte
- Ibai Ondo elkarte
- Mahaspildegi K.K.J.E.
- Peña Pagola elkarte
- Yoko Garbi elkarte

Txapelketa jokatu ondoren sari banaketa eta afaria izango dira Peña Pagola elkartearen.



Kale Nagusia 15, USURBIL  
Tlf. 943 37 33 40  
943 37 09 12



**ZUMETA  
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

## ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea

**Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)**

# N • I

## Ileapaindegia

MISTOA

*Solarium, depilazioa,  
makilajea eta manikura*

Aritzeta 2-2 1.A  
Tel.: 943 36 19 51

LABE-GOXO

# KULTUR HILABETEA

## USURBIL

2001

*x Santa Zuzilia eguna ospatzeko bi kontzertu egingo dira:*

**AZAROAK 22 ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO KONTZERTUA**  
Udarregi Ikastolan **19:30etan**

**AZAROAK 25 HERRIKO TXISTULARIEN KONTZERTUA**  
Pilotalekuan **12:00etan**

*x Herritarrek Pirineotan asto batekin igaro zituzten oporrak ikusteko aukera. Astoak hitz egingo balu!*

**AZAROAK 22 DIAPOSITIBA EMANALDIA**  
"Mendi trabesia asto batekin"  
Aitor Landaluze eta Jexus Agirresarobe  
Udarregi Zaharrea **19:30etan**

*x Haur eta helduek aukera izango dute herri kirolak eta baserri jolasak ezagutu eta egiteko. Parte-hartzaileek, ondo pasatzeaz gain, euskal kulturako arlo ezberdinak ezagutu eta praktikatzeko egun egokia.*

**AZAROAK 24 KULKI HERRI KIROL ETA BASERRI JOLASAK**  
Pilotalekuan **16:00etan**

*x Antzerkia:*  
Aktoreak: Lierni Fresnedo, Mikel Laskurain  
Zuzendaritza: Jordi Mesalles

**AZAROAK 30 ANTZERKIA - "Oihanaren legea"**  
Hika Antzerki Taldea  
Oiardo Kiroldegian **22:30etan**

*x Hitzaldia:*

**ABENDUAK 4 "1610: muga eta boterea, sorginkerien muga"**  
Etumeta Euskaltegi berria **20:00etan**

*x Musika: herriko talde berri bat*

**ABENDUAK 5 KONTZERTUA - GARAIA**  
Udarregi zaharrea **23:00etan**

EUSKAL PRESOK



EUSKAL HERRIRA!



Usurbilgo Udala

Noqua!!  
KULTUR ELKARTEA

# USURBILGO OFIZIOAK ZURE ESKURA DITUZU

## Igeltseritza

**URDANTZI**

**ERRAZKIN  
IGELTSEKITZA**

Kale Nagusia, 1

☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25

Santuenea ☎ 629 42 05 65

**JOSE AIZPURUA UNANUE**

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxadun konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67

**JOSUE ARANZATZIS**

Igeltseritza eta pintura

Juan Jose enea, 6

Kalezar

☎ 943 36 05 50- 606 37 21 05

## Pinturak

**RAMON  
BARCENILLA**

- Pikor pintura eta gotele lanak
- Papereztatze-lanak
- Pintura-lanak orohar

Mobila: 609 46 09 66

*Pinturas  
lon*

943 83 09 37- 670 39 75 04

## Iurgintza

**IÑAKI  
LATAILLADE**

Iturgintza gas eta bero-  
gintza

INSTALAKUN -

Mobila: 609 888021

**PORTULARRUME**

BAINUKO ALTZARIAK



Telf: 943 36 46 37

Mob: 659 602789

**JOSEBA  
ARANGU**

☎ 943 83 00 72

## Elektrizitatea

**MIKEL IZAGI**

Goiz-Argi etxea, 37

Kalezar

Telf: 943 36 50 95

## Aroztegiak

**BEREZIARTUA**

Egurrezko  
aluminio-gurrez-  
ko

Agir Telf: 43 37 5 71

**JOSE RAMON  
IBARGOEN**

Neurriko altzariak eta sukaldeak

Errotaberri kalea, 3 Osinalde

☎ 943 36 14 48 -

Faxa: 943 36 69 45

**JOSE MARI  
KURTZA**

Ugarte, 4 Kalezar

Telf eta faxa: 943 37 12

## Eskubiak

**JOSE ANTO-  
NIO**

Galtzaragaina 2-2B

Telf 943 37 34 70

**EUGENIO  
NORIEGA**

Erdiko kalea, 12

Atxegalde

Telf: 943 36 56 65- 616 92 60 25

Gida honetan azaldu nahi  
baduzu, deitu!  
943 36 03 21  
telefonora